



Lorategia

Maiteminduta al gaude?
Nor bait bereziki gustuko dugu
ala asko ditugu begiko?
Ea bihotzak zer dion, kopla doinuaz
kantuan hasita...
Ahozko loreak hartu eta emateko prest?

Zertan trebatuko gara...

Kopla txikiak neurri handira pasatzen
eta kopla handiak neurri txikira ekartzen.

... eta zer ikasiko dugu?

Zein diren bertso neurri nagusiak eta
zein diren neurria luzatzeko edo
mozteko estrategiak.

Plazara!

Kopletan ahozko lore sorta ederra osatuko
dugu... Inori oparitu nahi?





P i r o p o s o r t a

Sustrai Colina Akordarrementeria

Maiteminduta gauzkan horri, tori piropo sorta, azukre-eztitan lika-lika eginda.

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da !! Kopla handia

- 1 Zure irriak esnatzen ditu zaborrontziak **loretan**, izotz-mendiak palmondopean eta zebrak **koloretan**.
- 2 Zure ezpaineak ortzadarrezko bihotz baten forma **dute**: zure hortzetako aparatua konpartitu nahiko **nuke**.
- 3 Semaforoko panpina banintz, gurutzatzean **karrika**, gorritu gabe zure atzetik joango nintzake **korrika**.
- 4 Estudiatzen ukondorik ez dut urratu ohi **mahaietan** zuri so egon ahal izateko azterketa **garaietan**.
- 5 Zu bazinake ogia eta ni ontza bat **txokolate**, ez al nintzake zugaran urtuko Nutella bihurtu **arte?**
- 6 Pagari ere uko egiten diot aspaldi **honetan** zure irudia agertu arte billete ta **txanponetan**.
- 7 Segapotoko zure pantaila izan nahi nuke **lantzean** emotikono bat sentitzeko zure hatzek **lantzantzean**.
- 8 Nahiz orain arte karanbola bat zen ilargi **eklipsea** orain nahikoa da zu gauetan komunera **jaikitzea**.

Zergatik

Arkaitz Estiballes Ormaetxea



Maitemintzen garenean, barruak nahaspilatzen zaizkigu eta galderak datoz zurrunbiloan... Zenbat irrika eta zalantza!

Doinua: El dolor de los dolores Kopla berezia

- 1 Hamaika urte baditut eta dakit ia **dana**, zergatik ez dut ulertzen zer den gertatzen **zaidana**?
- 2 Koadernoan goiz osoa nabil bihotzak **marrazten**, baina zergatik ez diot whatsapp polit bat **idazten**?
- 3 Klasean esertzen bada bera nire **gibelean**, zergatik sentitzen ditut tximeletak **sabelean**?
- 4 Hizketan isildu gabe egon naiteke ordu **bi**, bera aurrean badago zergatik nago **urduri**?
- 5 Nire barruan guztia denean **korapilatu**, zergatik ez diet ezer nire lagunei **kontatu**?
- 6 Bera beste norbaitekin ikusten badut **barrezka**, barruan zergatik sortzen zaizkit horrenbeste **kezka**?
- 7 Klasean egoten banaiz buru-belarri **lanean**, zergatik ez nago adi bera ez **datorrenean**?
- 8 Sarritan ausarta banaiz zergatik ez naiz **ausartzen** orain sentitzen dudana noizbait berari **kontatzen**?
- 9 Bera ez bada etorri sekula nire **etxera**, zergatik gonbidatu nau bere **urtebetetzera**?
- 10 Benetan zoragarria baldin bada **maitasuna**, galdera hauei noiz eman behar diet **erantzuna**?

Gaur arte **3.000 bertso doinu** jaso dira. Neurri ezberdinetako doinuak daude. Ikas dezagun **neurri ezagunenak** bereizten!

Doinua hautatzerakoan, zeri erreparatu

- **Alaia, serioa ala tristea** nahi dugun.
- **Zenbat oin** erabili nahi ditugun.
- **Esaldi luzeak ala laburrak** egin nahi ditugun.



Oinen arabera: koplak, 8koa edo 10ekoa

Erreparatu bertsoak **zenbat oin** dituen.

2 oin
kopla

4 oin
8koa

5 oin
10ekoa

Esaldiaren luzeraren arabera: txikia edo handia

Hartu bertsoaren **puntu** bat eta ikusi **zenbat silaba** dituen **lehen lerroak** eta zenbat **bigarren lerroak**.

7/6 = Txikia
(13 silaba)

10/8 = Handia
(18 silaba)

**Ea bertso bakoitza zein neurritakoa den ondorioztatzeko gai garen!
Aldiro, erreparatu zenbat oin dituen eta puntuaren silaba kopuruari.**

2 oin 4 oin 5 oin 7/6 10/8
kopla 8ko 10eko Txikia Handia

<p>Ama begira zazu leihotik plazara ni bezalakorikan plazan ba ote da?</p>					
<p>Ari naizela ari naizela hor ikusten dut Txirrita eta zein ez da harrituko gaur gizon hori ikusita dudarik gabe egina dio andregaiari bisita oso dotore etorri zaigu bi alkandora jantzita.</p>					
<p>Bizitza kantu bat da guretzat hain justu neska-mutilok hori dago gure esku kantari eskolara kantari jolastu kantari lotaratu kantari amestu kantatzen ez duenak zorionik ez du.</p>					

Batzuetan, **doinua** egoki betetzeko, hitz gehiago sartu behar ditugu edo hitzen bat kendu.

Egoera horretan, abiapuntua hauxe da: esaldia uler dadin,

zein hitz dira ezinbestekoak?

Hitz gako horien inguruan, beste **hitz hauek jarri edo kendu** genitzake, esaldia luzatzeko edo mozteko.

Jarri edo kentzeko hitzak

Silaba bakarrekoak

BAI / EZ
NI / ZU / GU
GAUR / LEHEN / BEHIN
HAIN
HAN / HOR
MAIZ
BA

Bi silabakoak

AIZU / OSO / HALA
NIRE / ZURE / BERE
BAINA / NOSKI / BERAZ
LASTER / ORAIN
GERO / BIHAR
ONGI / GAIZKI
BEHINTZAT / BERRIZ

Hiru silabakoak

AKASO / AGIAN / SEGURU
ERABAT / ZEHARO
BENETAN
ORDUAN / SARRITAN
EDERKI / POLIKI / HORRELA
GAINERA

Atzizkiak

Hitzak luzatzeko modu ona da atzizkiak erabiltzea.

HORI-**XE**

TXIKI-**TXO**

ZORRI-**TSU**

ETXE-**RA** / ETXE-**RANTZA**

ZU-**RI** / ZU-**REKIN**

ZU-**GANA** / ZU-**REGANA**

AITA-**GATIK** / AITA-**RENGATIK**

ATZO-**TIK** / BETI-**DANIK**

HAMAR-**ETAN** / HAMAR-**ETARAKO**

Sinonimoak eta antzekoak

Hitzak ordezkatu egin ditzakegu antzeko esanahia duten eta silaba gehiago/gutxiago duten beste batzuekin.

NAHI / **GURA** / **DESIO** / **ESPERO**

JARRI / **EZARRI** / **IPINI**

EMAN / **ESKAINI** / **PARATU**

ANDREA / **EMAKUMEA**

KANTU / **ABESTI**

ONA / **BIKAINA** / **EDER GALANTA**

TXARRA / **KAXKARRA** / **NEGARGARRIA**

Azken dantzaldia udalekuan

Kopla sorta hau doinu ezberdinetan abestu ahal izateko, neurri txikira eta neurri handira egokituko dugu, esaldiak luzatuz edo laburtuz.

Doinua: Ama begira zazu
Kopla txikia

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II
Kopla handia

Aurten gustura gaude
udalekuetan
eta plana daukagu
iluntze **honetan.**

Gonbidatu gaituzte
azken **dantzaldira**
baina inor ez doa
plazaren **erdira.**

Kanta bat jarri dute
bibolinarekin
dantzatu behar dena
bikote **batekin.**

Batek nahi ote dudan
egin dit **galdera**
korrika bueltatu naiz
lagunen **artera.**

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II
Kopla handia

Doinua: Ama begira zazu
Kopla txikia

Aurten berriro derrigortuta
nator **udalekutara**
azken gauean erromeria
oso **aspergarria da.**

.....
.....
.....
.....

Mundu guztia borobilean
eta denok banan **bana**
baina nik orain aurrean daukat
niri gustatzen **zaidana.**


.....
.....
.....
.....

Kanta geldo bat ipini dute
oso polita **gainera**
biok batera dantza egiteko
haxe da azken **aukera.**

.....
.....
.....
.....

Gero joan ta galdetu diot
orain dantzarik egin **nahi?**
Bilintx bezala hementxe nago
berak erantzun dit **jai-jai!**

.....
.....
.....
.....



Karta jokoa hartu eta, **oin bikoteekin,**
kopletan egingo dugu **maitasunari buruz.**
Goza dezagun gure lore festan!

Jolasa

Errimen margarita

“Maite nau ala ez nau maite?” jolasean bezala, margarita bakoitzari petalo batzuk kendu eta beste batzuk utzi beharko dizkiogu.

Lore bakoitzean, **errimatzen ez duten hitzak** baztertzeko prest?

Gogoan izan **errima familiak!**

Loreetan gelditzen zaizkigun oinekin, **puntuka** egin dezakegu gero.

